

# noaua

**Udala hasi da 2014ko udal  
aurrekontua bideratzen**

**Erraustegia gelditu izana  
ospatu dute eragileek  
eta herritarrek**


**Ibilaldi eta proiektioz  
betea dator Mendi Astea**

**Ezbeharrez**

**beteriko astea**

**Bi baserri erori eta hainbat lubizi izan dira**

# Auto Guria



**Auto Konponketa**

**Pre I.T.V.**

**Marka guztiak**

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)  
☎ 943 363 298 • Faxa: 943 363 862

## OGI BERRI

ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...  
IKUSI FUTBOL  
PARTIDUAK  
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)  
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

## INTZA

ILEA PAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

### ESTETIKA ESKAINTZAK

Depilazio osoa + besapeak + bekainak + bibotea: 25€  
Aurpegiko garbiketa osoa + bekainak + bibotea: 30€  
Manikura eta pedikura osoa: 30€ (jubilatuentzat 22€)

#### IKASLE EDO 18 < GAZTEENTZAT, DEPILAZIOAN:

Ingleak + besapeak: 10€ · Bekainak eta bibotea: 7€  
Hanka osoak: 18€ · Hanka erdiak: 10€

Eguerditan irekia! Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41

## Albistearen iruditan

# Artzabalgo lizarrarena, "iragarritako heriotz bat"

**M**ezu hau eta ondoko argazkia bidali zigun astelehen Jakoba Errekondok. "Artzabalgo Lizar tzarra eraitsi dute. Usurbilgo ondarearen etengabeko suntsiketaren beste urrats bat burutu da. Urtetan sufritzen, iraun ezinik hor egon da lizar eder hau.

Ezjakinen eta jende harroaren jarrerak usurbildarron ondarea pobretu dute eta bere horretan jarraitzen dute".

Antza denez, Artzabal berritzeko lanak egin zirenean, lizarra izorratu egin zen obrekin. Jakoba Errekondok adierazi digunez, horrelako kasuetan "Udalak ez dauka zuhaitzak eta antzeko ondarea babesteko araudi-rik".

Obra eta gero, zuhaitza ihartzten joan da. Artzabal baserriari lotuta egon den zuhaitzarenak egin du, beraz.



Artzabal berritu zen garaian izorratu zen, obren ondorioz.

## Laburrean

### Sohütako Eperra ikastola laguntzeko kanpaina

Azaroaren 30era arte NOAUA!ra deituta (943 360 321) edo egoitzara etorrita eska dezakezue, Eperra ikastola laguntzeko saskia.

**Ahuski otarra:** 39 euro. Ardi gazta, ahate-patea, bizkotxo poltsa "artisanala" eta ezti  
**Irati otarra:** 51 euro. Ardi gazta, ahate-patea, bizkotxo poltsa "artisanala" axoa, xahalki xehatua saltsan. ([www.xiberokoikastolak.eu](http://www.xiberokoikastolak.eu)).

### Mus txapelketa Benta tabernan

Ostiral gaueko 22:00etarako antolatuta da. Izen ematea 20 euro. Sariak: txapeldunentzat, 2 garaikur, 2 kaxa marisko eta 2 botila txanpan; txapeldun ordeentzat, lau kg txuleta eta bi kaxa ardo; hirugarren geratzen direnentzat, 4 kg saiheski eta bi kaxa ardo; laugarren geratzen direnentzat, 2 kaxa langostino eta bi botila ardo. Informazio gehiago: 943 36 93 05.

### Ostegun honetan, Santa Zeziliko kalejira

Euskal Herriko musika eskolek azaroaren 21erako egin duten deialdiarekin bat eginez, herri erdigunea inguratuko duen kalejira bat egingo dute Zumarte Musika Eskolak. Eta gero, Sutegin doako emanaldia eskainiko dute:

- 18:00 Txaranga txikia/ trikixka taldeen kalejira.
- 19:00 Talde instrumentalen eta abesbatzen emanaldia Sutegin. Sarrera doan.

# noaua

Kultur Elkartea  
 Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
 943 360 321 /// [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) /// [www.noaua.com](http://www.noaua.com)  
 Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
 Ana Aizpurua.

**Aldizkariko koordinatzailea:**  
 Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Bea Alda,

[publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com).

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaua.com:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA**  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Nerea Zinkunegi

## Azaroak 25, 26, 27, 28, 29...

**A**ntza, 1960. urteko azaroaren 25ean Dominikar Errepublikako Rafael Leonidas Trujillo diktadorearen aurka lan egin zuten Minerva Mirabal, M<sup>a</sup> Teresa Mirabal eta Patria Mirabal ahizpa dominikarrek akabatzea agindu zuen agintari tiranoak. Ondorioz, 1999. urtean Nazio Batuen Asanblada Orokorra egun hau, azaroaren 25a, Emakumeonganako Indarkeriaren Aurkako Aldarrikapen eguna izatea erabaki zuen.

Honelako gertakariak kontuan izanik, aldarrikapen egun hau izan zitekeen urtarilaren 1etik hasi eta abenduaren 31 arte edozein egun edo

are gehiago, urteko egun guztiak. Izan ere, bakarrik azken hamar urtetako estatistikek diotena kontuan hartuta, estatu espainiarrean, soilik, zazpiehun, 700, DCC (erromatarrez) emakume inguruk galdu dute bizia egungo gizartean dugun matxismoa izeneko "minbizi" honek jota. Datuak, zoritxarrez, egun guztiak egiten ditu aldarrikapen egun.

Aldarrikapena orde, emakumeona balitz bezala tratatua izan da eta tratatzen da. Emakumeonganako edozein indarkeri mota ematen dela ere guztiok behar genuke sentitu biktima, guztioi eragiten baiti-

gu biolentzia honek, lakra honek, emakume zein gizoni, ez al da hala?. Baina gizarte mailan ez dugu horrela bizi asuntua.

Pentsa dezake batek duela hamar-kada batzuetatik hona gauzak aldatu direla eta ordutik hona gizon eta emakumeon arteko berdintasuna, parekidetasuna, nabarmenagoa dela, matxismoak leku gutxiago duela gure artean eta gertatzen diren txarren kasuak maila "sozioekonomikokultural" konkretu bati loturik daudela...kazarra!

Idatziarekin amorra arazita, sututa, lantokitik atera eta herriko plaza-

rantz abiatu naiz zertxobait hartzeko asmoarekin, ilunabarra da. Kiroldegi parean geratu naiz, txunditurik, goialdean dagoen eskapareteari begira; inora ez doazen bizikleten gainean gizon mordo bat ikusten dut pedalei eragiten, emakume aztarrenik ez. Plazara iritsi orduko umesoinuak iratzar arazi nau nire uste ilunetik; umeen amak, zaintzaileak, emakumeak, itzalpean dira haiei begira, zelatari, zerbait hartzen ari diren bitartean. "Benoa, nire artean, tabernetara iritsi gara behintzat"...ez gaitetzen engainatu, hemen ez da ostiyik ere aldatu!

Luken Arkarazo | Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Imanol Ubeda | **Nerea Zinkunegi** | Joxe Piñas

### Ika-Mika

## Zorionak, eta besarkada handi bat guztioi

**A**zken urteotan, oso gertutik bizi izan dugu usurbildarrok erraustegia ezarriko zigutena-ren beldurra. "Erraustegirik ez!" lelotik ekin, eta ez dela behar esan ahal izateko ibilbideari ekin genion Usurbilen. Zorionekoak gara, Zubietan egin asmo zen erraustegiaren proiektua bertan behera gelditu delako. Bide honetan, asko eta asko izan dira bere ahalegina jarri duten herritar, erakunde eta instituzioak. Mobilizazioetan parte hartuz, hondakinen kudeaketa arrazional baten alde bozkatzuz, etxean hondakinekin ondo jokatzuz, udaletxean apustu berriak eginez, erabaki ausartak hartuz, ....

Hauk aipatzerakoan, hainbat eta hainbat herritarren aurpegiak bururatzan zaizkigu. Urte luzetako lan eta konpromisoaren emaitza izan da hau. Bene benetan, guztioi mila esker eta zorionak.

Hondakinak gaika ondo bereiztu eta Atez Ateko bilketari ekin genion Usurbilen, sekulakoak eta bi entzun behar izan genituen, presio mediatiko latza jasan, zikinak, gezurtiak, tranpatiak, kaleak arratoiez genituela, diru-publikoa xahutzen dugula, .....burura etorritako mespretxu piloa entzun behar izan dugu, baina, lau urte pasa eta gero, jada Gipuzkoan 100.000 biztanle baino gehiagoren

hondakinak, gaika, atez ate biltzen dituzte hainbat herritan. Eta horretan ere, guk usurbildarrok, ondar aletxoak jarri izanaren harrotasuna eduki behar dugu. Atez Ateko bilketa eginaz irakatsi dugu, sinesgarri egin dugu, beste errealtate bat posible dela, eta orain, horretara doaz Gipuzkoako herri asko.

Gure ahalmenean sinetsi, eta, Gipuzkoa, Zero Zabor lurraldea izan dadin eragiten segi behar dugu. "Ez hemen, ez inon" erraustegiei buruz dioguna, berdin berdinean, helburu jarri behar dugu zabortegei buruz. Sortzen ditugun hondakinak ez nahastea eta bereiztuta biltzea oso

ondo egiten ari gara. Hurrengo erronka, ahalik eta gutxien sortzea da. Zero Zabor norabidean denok egin ditzakegu gure esku dauden ekarpenak: erosketak egiterakoan hondakin gutxien eragiten dituzten produktuak erosiz, hondakin organikoak autokompostatzeko konpromisoak hartuz, beharrezkoak ez diren bilduki piloa hondakin bihurtzeko merkaturatzen dituzten enpresei dagokien ardura-kizuneko lege eta arauak ezartzeko eskatuz, .... Ea, aurki, Gipuzkoan zabortegei buruz ez daukagula esateko zoria ere badaukagun.

**Usurbil Zero Zabor**

### Ika-Mika

## Eskerrik asko Ramon, handia izan haiz!

**K**aixo Ramon, hitz batzuk idaztea erabaki diat nire esker ona adierazteko. Duela 30 bat urte hi ezagutzeko aukera izan nian, 14 bat urte izango nizkian eta 8 bat urtez hirekin entrenatu nian, nire bizitzako urterik intentsoenak izan hituan. Hirekin Ramon, ikasi nian zerbait lortzeko gogoia, lana eta sakrifizioa

beharrezkoak direla.

Niretzat nire bigarren aita izan haiz. Hi, beti hor egon hintzen nire momentu on eta txarretan, egunero egunero, hotza, euria edo elurra egin beti gurekin entrenamenduak zuzentzen Kalezarreko zelaietan edo gimnasioan eta udaberri-udaran astebururo lasterketetan. Dena hutsaren truk.

Arazo pertsonaletan ere beti laguntzeko prest hintzen. Niri asko lagundu hidan eta hiri esker arazoei aurre egiten ikasi nian. Mila esker Ramon eman didaken guztiagatik, hirekin beti zorretan egongo nauk. Nire bihotzean hiretzat txoko bat beti egongo duk gordeta eta egunen batean berriz elkartzeko aukera badiagu, niregatik

egin duan guztia eskertzea espero diat. Hagoen tokian egonda ere seguru hire bihotz handi, on eta maitagarriaz besteei laguntzen ariko haizela orain ere. Ramon mila esker hi ezagutzeko aukera eman hidalako, bizitzak emandako pertsonarik garrantzitsuenetako bat izan haiz. Maitasunez,

**"Txeroki"**

# Euriteek bi lubizi eragin dituzte

**E**zbeharrez beteriko astea izan zen aurrekoa. Sua, lubiziak eta baserrien erorketak gertatu ziren oso denbora gutxian. Kalte pertsonalik ez da izan baina kasu batzuetan kalte materialak handiak izan dira. Horretaz aparte, behin behingoz etxerik gabe geratu direnek Udalaren emergentziatzako etxebizitzak baliatu behar izan dituzte.

Urkamenditik larberako bidean eman zen lehen lubizia, pasa den asteazkenean. Horren ondorioz, Usurbil eta Aginaga goia lotzen dituen bidea itxi egin behar izan zuten eta horrela jarraitzen du oraindik.

Ingenieri batekin joan ziren udal ordezkariak eta bidea konpontzeko soluzioa topatu dute. Sei metroko inkak sartuz lurlean. Hala egin zen Puela bidean eta Zubietako Urtia bidean. Jone Urdanpilleta udal zinegotziak adierazi digunez, "bidea eusteko, hormaren ondoan metro bakoitzeko 6 metroko inkak sartzea proposatu digute. Eta horren burua hormigoiz estali. Horrela eutsiko litzaioke bideari. Lurra, joan dena, hori errekupeatzea zailagoa izango da".

Uren kanalizazioa ere aztertu behar dutela adierazi digu Jone Urdanpilletak. Baina horrek soluzio konplexuagoa du. Lur eremuak ez du bannkada batzuk egiten uzten. Orogra-



Urkamenditik larberako bidea, lur-jausia eman berritan. Argazkia: Jakoba Errekondo.

## BI LUBIZI

**"Eguzkitza eta Urdaira arteko lubiziak oinezko herri bide bat oztopatu du. Urkamenditik larberako errepideak itxita jarraituko du"**

fiak erabat baldintzatzen duelako edozein lan.

## Ur kanalizazioak ere kezka iturri dira udaletxean

Ingenieriaren ideari jarraituz, aurrekontu bat jaso du dagoeneko Udalak. "Txostena badugu bidea sendotzeko. Baina hobeto aztertu nahi dugu". Errepidearen konponketa hamabost eguneko kontua litzateke. Baina ur kanalizazioari ere errepertatu nahi diote udaletxetik. "Oraindik baloratzen dugu", adierazi digu Urdanpilletak.

Bien bitartean, Urkamenditik larberako bidea itxita jarraituko du. Dena den, beste bide batzuk baliatuz, alternatibak badituzte inguruko baserriarrek.

## Beste lubizia, Eguzkitza eta Urdaira artean

Eguzkitza eta Urdaira artean beste lubizi bat izan zen. Ez du errepiderik harraipatu baina oinezko herri bide bat oztotzen du.

# Aintziberri eta Atxeganea baserrietan, kalte handiak

**A**txeganea baserriaren zati bat erori zen aurreko ostiralean. Ez zen ezbehar pertsonalik izan, baserria hutsik zegoelako aspalditik. Aldameneko etxebizitzak ordea, hustu egin behar izan zituzten, segurtasun arazoak medio. Teknikoak ari dira Atxeganearen egoera aztertzen. Bien bitartean, udalaren emergentziatzako etxebizitzetan kokatu dituzte euren etxeetatik atera behar izan dituzten familiak.

Teknikoen txostenen faltan, Atxeganea baserri osoa bota beharko dute. Arestian esan bezala, baserria



Aintziberri baserria, erori berritan (argazkia: Udala).

hutsik zen aspalditik.

"Artzaiena" ere deitu ohi zaio baserri honi. Aialdenezar etxeari hego-

aldetik erantsia dago. Usurbilgo baserriak eta baserriarrek liburuan irakurri dugunez, "antza denez, gaur bi

etxe diren hauek, bakarra izan ziren aspaldi. XVIII. mendean, biak berre-raikiak izan ziren".

## Kalte pertsonalik ez Aitziberri

Aste beltza borobiltzeko, ostiral arratsaldean beste baserri bat erori zen. Aintziberri, Aginagan. Baserrian bizi direnek ez zuten kalterik jasan baina baserria utzi behar izan dute.

Usurbilgo Baserriak eta Baserriarrek liburuan jasoa datorrenez, "Aintziazarretik jarraian, ibar txiki berean dago kokatua Aintziberri baserria. Dirudienez, XIX. mendean eraiki zen Aintziazarrekoak ziren lurretan".

# Aro berria, Gipuzkoako hondakinen kudeaketan

**G**ipuzkoako Hondakinen Kentsortzioaren, Foru Aldundiarren eta enpresa eraikitzaileen ordezkariak elkarri eskua emanez, akordio batekin lurperatu dute behin betiko Zubietan eraiki asmo zegoen errauste planta proiektua. Ondoko argazki historikoa, iragan azaroaren 13koa da. Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketan ziklo bat itxi eta etapa berri bat ireki zen eguneko. Gatazka urteak atzean utzi eta adostasunaren bidea ireki nahi duena. Guztia, bi aldeek adierazi zuten moduan, "gipuzkoarren mesederako lan egiteko".

Hamarkada batez udalerririk bat baino gehiagoko herritarrek mehatxatu dituen mamua uxatu da. Iragan asteko akordio historikoak hautsak harrotu ditu. Hedabideen eta politikarien ahotan ibili da azken egunotan. Poza eta zorion mezuak nagusitu dira errausketaren aurka urte luzez borrokatu diren eragile, herritar eta erakundeen artean. Azalpen eske, eta enpresei kalte ordainak ematearen aurka agertu dira, errauste planta babesten zuten alderdi politikoak. Halere, GHK eta enpresen artean adosturiko akordioa ordea argia da; ez da erraustegirik eraikiko ez Zubietan, ez beste inon:

## Akordioari ongi etorria eman dio Udalak

**S**uziriek ospatu zuten akordioa Usurbilgo Udalak, azaroaren 13an. Honako bando hau kaleratu zuen egun berean:

"Gaurko egunez, Zubietan aurreikusita zegoen errauste plantaren proiektua bertan behera geratzeko akordio ga-



Gipuzkoako Foru Aldundian eman zen ezagutzera akordioa.

### AKORDIOA HITZEZ HITZ

2013ko urriaren 3an Gipuzkoako Hondakinen Kentsortzioaren zuzendaritzak eta UTE GIPUZKOA CGRko ordezkariak sinatutako akordioaren ondorioz-non bi hilabeteko epea jartzen baitzen akordio batera iritsi eta bi aldeak lotzen zituen kontratua adostasunez amaitzeko-, gaur, 2013ko azaroaren 13a, asteazkena, akordio hau lortu da:

-Amaitzea formalki bi aldeen arteko kontratu harremana, eta ondorioz gabe uztea Zubietako erraustegia eraikitzeko proiektua.

-Gipuzkoako Hondakinen Kentsortzioak UTE GIPUZKOA CGR-ri honako zenbateko hau ordainduko dio: %3 eraiki gabe geratu den zatia- ren lortu gabeko irabaziengatik, eta %3 CGRk proiektatu-

tako planten ustiapenaren lehenengo bost urteengatik.

-Eraiki gabe geratu den zatia- ren lortu gabeko irabazien ondoriozko ordainketa 6.690.000 euro da; ustiapeneko lehenengo bost urteen ondoriozkoa, berriz, 1.500.000 euro.

Ondorioz, Gipuzkoako Hondakinen Kentsortzioak UTE GIPUZKOA CGR-ri ordainduko dion zenbatekoa, kontratua amaitzeagatik eta Zubietako erraustegia eraikitzeko proiektua bertan behera uzteagatik, 8.190.000 euro izango da.

Akordio hori bi aldeek erakutsitako borondate onari esker lortu da, gipuzkoarron mesederako lan egiteko bion jarrerari esker.

Donostia, 2013ko azaroaren 13a.

### Eta orain zer?

Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Hondakinen Kentsortzioak, datozen hileotarako lehentasunak finkatuak dituzte jada; hondakinak tratatzeko azpiegitura alternati- boak eraikitzea eta azpiegitura hauen inguruan ahalik eta ados- tasun maila handiena biltzea. Horretarako, elkarriketa erron- da bat abiatzekoak dira eragile desberdinekin. GHK-k berri eman duenez, azpiegitura berriak mal- guak eta ekonomikoki eta ingu- rumenaren ikuspuntutik jasanga- rriak izango dira. Horretarako, azterlanean dihardute. Azterlanon emaitzen berri laster emango dutela iragarri dute.

Halere, zer nolako azpiegitu- rak bultzatu nahi dituzten aurre- ratu dute GHK-tik. Hondakin zati guztiak tratatzea helburu izango duten plantak eraiki asmo dituz- te:

- Organikoa tratatzeko: konpos- tatze eta biometanizazio azpie- giturak.
- Ontziak eta papera tratatzeko sailkatze plantak.
- Erreusarentzako tratamendu mekaniko eta biologikoa ema- teko azpiegiturak.

### "Garaipen berriak dauzkagu zain"

Ez da ahaztu behar, 2012ko ekai- nean Foru Aldundiak jendaurre- an aurkeztu zuen hondakinak kudeatzeko aurrera begirako pla- nak jasotzen duenez, erronka bikoitza bete nahi dela Gipuzko- an; 2016rako gaikako bilketa %60ra eta 2020rako %75era igo- tzea. Helburuok betetzeko orain- dik urrats garrantzitsuak emate- ke daudela diote Foru Aldundi- tik. Horretarako, herrialdeko Uda- lei zero zabor norabidean pauso- ak emateko eskatzen diete.

Foru Aldundiak onartua duen "Hondakinak. Konponbidea" hon- dakinen kudeaketari loturiko pla- naren aurrerapen dokumentua, gipuzkoaberri.net atarian ikusgai.

rrantzitsua iragarri du Gipuz- koako Hondakinen Partzuer- goak, obra egitekoa zuten en- presekin akordioa lortu ondo- ren.

Usurbilgo herriarentzat be- rri pozgarri hau herritar guz- tiokin partekatu nahi dut eta, era berean, hainbat urtetan usurbildarren aldarrikapenari

erantzuna ematen dion iragar- penari ongi etorria eman. Ha- laber, bando honen bidez, usurbildar guztiak zoriondu nahi ditut, urte hauetan errauste planta ezartzearen aurka emandako urrats tinko eta jarrera gizatiar eta aurre- rakoia eskertuz", agurtzen zen Mertxe Aizpurua alkatea.

# GHK: "Akordio honek ere atzean utzi nahi ditu bide judizialak"

**H**ilabeteetako lanke-taren emaitza da lortu den akordioa, Gipuzkoako Hondakinaren Kontsorzioarentzat (GHK). Akordio on bat, gipuzkoarrek pozik egoteko modukoa, horregatik zorion mezua helarazi nahi izan zuen aipatu erakundeko lehendakari Ainhoa Intxaurrendietak akordioa adostu eta gutxira eskaini zuen prentsaurrekoan. Atzean geratu da, bere esanetan, behar ez zen, ingurumen eta osasunarentzat kaltegarria izan, eta ekonomikoki bideraezina izango zen proiektua. Ez hori bakarrik, Intxaurrendietaren esanetan, "akordio honek ere atzean utzi nahi ditu bide judizialak, epaiketa gatazkatsuak eta orain arte sortu diren tentsio guztiak ere. Orain korapilo horiek guztiak askatzen saiatuko da Administrazio Kontseilu hau, gatazka atzean utzi eta premiazkoak diren beste zereginetan buru belarri hasteko". Erakundeen eta enpresa eraikitzaileen arteko akordioak, inflexio puntua suposatuko duela iragartzen du GHK-k.

## Foru Aldundia: "bukatu da erraustegiaren mamua"

Pozik eta harro egoteko moduko albistea dela gipuzkoar guztiontzat, hala zioen Iñaki Errazkin Foru Aldundiko ingurumen diputatuak azaroaren 13an, GHK-ko lehendakariare-



Pasa den larunbatean herritar ugari batu zen Zubietan, ospatze-ekitaldian.

## IÑAKI ERRAZKIN

**"Bukatu da Gipuzkoako erraustegiaren mamua, behin betiko. Gipuzkoak ez du erraustegirik izango, ez orain eta ez gero"**

kin batera, errauste planta bertan behera uzteko akordioaren berri eman eta ordu gutxira hedabideen aurrean eskaini zuen lehen balorazioan.

Akordio honekin, etapa bat ixten da Errazkinen esanetan, "bukatu da Gipuzkoako erraustegiaren mamua, behin betiko. Gipuzkoak ez du erraustegirik izango, ez orain eta ez gero". Erraustegiaren bidea amaitu dela, eta aurrera begira jorratuko dena, "zero zabor bidea da Gipuzkoan". Ahalik eta hondakin gutxien

sortzea, eta sorturikoak birziklatzea alegia. Bide onetik goaz, ingurumen diputatuaren esanetan, "ondo ari gara".

## Festa Zubietan, laster

Urte luzez borrokatuta lorturiko garaipena behar bezala ospatzeko festa erraldoia antolatzen ari dira Zubietan. Laster ospatuko da eta prestatzen hasteko deialdia luzatu zuen Gipuzkoa Zero Zaborrek, larunbateko errebote plazako agerraldian. Herritarrak 2011n gune berean grabatu zen flashmobeko pausoak entseatzeko hastera animatzen dituzte.

## GHK-ren hitzaldia

"Erraustegia: kedarretatik argira" izenburupeko ekitaldi zikloa jarri du martxan GHKk. Usurbilen, abenduaren 5ean egingo da hitzaldia. 19:00etan Sutegin.

## "Zero Zabor lurraldean izan dadin eragiten segi behar dugu"

Hori zioen Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduak, Erraustetaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundeak, Ekologistak Martxan eta Eguzki taldeek deituta, errauste planta proiektua bertan behera gelditu zela ospatzeko larunbatean Zubietan deitu zuten agerraldian. Udal agintari zein herri eragile asko batu zen bertan. Denak pozik asko, elkar zoriontzen, hondakinak errausteko proiektua geratu zutela ospatzera bertaratu ziren errebote plazara.

## Fernando Iturralde: "Ez dugu nahi, ez dugu behar"

Poztasuna azaltzen agerraldiko lehena, Fernando Iturralde Zubietarra izan zen, maiz aldarrikatu duten moduan, "Erraustegirik ez dugu izango zeren eta askotan esan dugun bezala, ez dugu nahi, ez dugu behar, ez Zubietan, ez Gipuzkoan, ez Euskal Herrian, ez inon!". Egoera zeharo aldatu da orain, "Gipuzkoako herritarren indarraren esker (errauste plantaren) mamu hori gelditu, uxatua izan da".

## Ainhoa Arrospeide: "Garaipena, Gipuzkoa osoarena"

Guztiok errealitate bat aldatzeko duten ahalmena agerian geratu dela zioen Ainhoa Arrospeide Gipuzkoa Zero Zaborreko kideak. Garaipena Gipuzkoa osoarena dela zioen, "Lemoizko zentral nuklearra gerarazi zenetik" lortu gabekoa. Eta bide horretan lanean segitzeko gonbita luzatu zuten, "zero zabor lurraldean izan dadin eragiten segi behar dugu".

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

**ARRANDEGIA PELLO**

PUNTA PAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**TXAPELDUN TABERNA**

razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...

Muna lurre 2, 943 11 82 53

**ALDAMU**

**KONPONKETAK**

KALE NAUSIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

# 2014ko aurrekontuak, prest

IAZKO AURREKONTU ERREALAREKIN ALDERATUZ, %8,8 IGO DA 2014KO UDAL AURREKONTUA

**E**H Bilduk aste honetan aurkeztuko die gainontzeko alderdiei 2014rako prestatu duen udal aurrekontu proposamena. 15 eguneko epe bat irekiko dute ekarpenak jasotzeko. Eta tartean eragozpenik ez bada, behin behingoz onartuko da abenduan, ezohiko pleno batean. Alegazioak egiteko epea irekiko litzateke segidan, eta leudekeenak aztertu eta erantzun ondoren, 2014ko otsailaren erdialderako behin betikoz onartuko litzateke udal aurrekontu berria.

## DIRU SARRERAK

“2012ko aurrekontuaren itxiera egin zenean, 2013ko aurrekontua murriztu egin behar izan genuen”. Hala adierazi digu Alaitz Aizpuruak, Ogasun alorreko udal zinegotziak. Alegia, 2013rako prestatu zuten aurrekontuari %4,5eko murrizketa



Alaitz Aizpuru Ogasun arloko zinegotziak aurreratu dizkigu ildo nagusiak.

egin behar izan ziotela. Pasa den martxoan izan zen hori.

Murrizketa hura kontuan harturik, “2013ko aurrekontu errealekin alderatzen badugu, “%8,8 igo da 2014ko udal aurrekontua”, Alaitz Aizpuruak azaldu digunez. “Esan genezake, ez direla kopuru ikusgarriak baina pixkanaka-pixka-

naka goranzko bidea hartzen ari da udal aurrekontua”. Azken urteotan beheranzkoa izan da joera, “baina orain joera horri buelta ematen hasi gara”.

## IGOERA HORI, NONDIK NORA DATOR?

“Fondo Foralaren ekarpena %5,4ko igoerarekin datorkigu.

“Eta zergei KPI igoera minimoa ezarri zaie”, Ogasun arloko zinegotziak azaldu digunez. Salbuespenak salbuespen, zeren zerga batzuk mantendu egiten dira bere horretan. Zergei KPI igota ere, “Usurbilgo Udalak duen hobari sistema aurrerakoenetakoa da Gipuzkoan”.

Horretaz gain, **hirigintza aprobetxamenduak** aurreikusi dituzte 2014rako, eta udal aurrekontuetan islatuko dituzte. “Ez dira 2007 edo 2008ko kopuruak izango, baina badirudi Ugartondoko etxebizitzak 2014an abiatuko direla. Aurrea doaz, ez guk nahiko genukeen martxan, baina uste dugu aurten egingo dutela aurrera”.

**Tasatan**, 2013an bezalaxe, 2014an ere errenergia izango dute etxe hutsek. Ez dira kantitate handiak izango baina bere ekarpena egingo dute sarrearen artean.

## “Herri eragileei ematen zaizkien diru laguntza kopuruak mantendu egingo dira”

**G**astuetan, hainbat irizpide mantendu egingo dira 2014an. “Herri eragileei ematen zaizkien **diru laguntza kopuruak** (Ongizate, Kultura, Kirola, Ingurumena, Aisialdia, Euskara...) mantendu egingo dira. Ongizatean, gehien behar duten pertsonen laguntza mantendu egingo zaie eta kasu batzuetan handitu egingo zaie laguntza hori”, Alaitz Aizpuruaren hitzak dira. Larrialdietarako diru kopuru horiek handitu egingo dituzte.

## ZORRA, KONTROLPEAN

Zorra da egungo krisi ekonomikoa kezkarik handiena. “Gu udaletxean sartu ginenean esan genuen ez gine-la gehiago zorpetuko. Udalak zorra badu, ez da handia baina zorretan dago. Epe luzekoa da gainera. Baina urtero dagokion neurrian amortiza-

tzen joan gara zor hori”. **Gehiago ez zorpetzearekin**, EH Bilduko kideek uste dute ondo mantenduko dela Udalaren zorpetze maila.

Eguneroko martxan, asko dira Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak. **Zerbitzu horien mantenua** udal aurrekontuaren gastu handiena da. “Azken hiru urte hauetan arrazionalizatu egin da gastu hori, kudeaketa zorrotza egiten saiatu gara. Aurrekontuaren %44a da. Zorroztasun hori present izatea garrantzitsua da, gastu hori handitu ez dadin”, aitortu digu Alaitz Aizpuruak.

Azken urteotan, **Udalak dirua aurreztu du bestelako gastuetan**. “Diputazioaren bitartez kontratazio zentralak egin dira. Telefonía, alarma sistema, extintoreak... Zerbitzu horien kudeaketa berriarekin hobekuntza handiak izan ditugu”.

**Subkontratutako lizitazioetan** ere, “irizpideak ondo markatu ditugu, prezioak egokitzen ahalegin handia eginez”.

**Gainontzean, asko dira Udalak egiten dituen ekarpenak**: Udalbiltzarako aportazioa, UEMAri egiten zaiona, euskalgintza mailakoak (Kilometroak eta horren parekoak)... Ekarpene horiek mantendu egingo dira 2014an.

## GARAPENA, ENPLEGUA

2014ko gastuetan, **garapen agentziari kapitulu berezi bat eskainiko zaio**. Enplegu planetatik abiatuta, Buruntzaldeko udal ordezkariak lankidetzak hitzarmen bat sinatu zuten. “Diputazioak eskualdeen arteko mahaia osatu du eta, une honetan, teknikari bat dago kontratatuta eta mahai horretan ari da parte hartzen,

Buruntzaldeko ordezkari gisa”. Ekainerako, teknikari honek “garapen agentziaren funtzioa beteko duen proposamen bat aurkeztu beharko du gure eskualderako. Garapen agentzia ereduaren artean, egokiena hautatu dezagun. Enplegu eta industriaz haratago, balore sozial eta kulturak ere kontuan hartu behar direla uste dugu”, hala esan digu EH Bilduko kideak. Aurrekontuetan, noski, eragina izango du honek guztiak. **“Enplegu Planarekin ere jarraituko da 2014an**. Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen 480.000 euroko aportazioarekin, guztira 600.000 euroko enplegu plan bat egongo da eskualderako”.

**Merkataritza arloko eragileekin lankidetzak mantenduko da**, Hurbilago eta Siadecorekin urratu zuten biderei jarraipena emanez.



# Inbertsio nagusienak

10.320.000 EUROKOA IZANGO DA USURBILGO UDAL AURREKONTUA DATORREN URTEAN

**G**astu eta sarrera kopuruetan ez da nobedade handirik izaten. Inbertsioak izaten dira udal gobernu baten egitasmoak begibistan uzten dituztenak. Eta gastu korrontekak, berez, hain handiak izaten direnez, inbertsioetarako diru kopuru gutxi geratu ohi dela. Are gutxiago, hirigintza aprobetxamenduen “urrezko aroa” aspaldi igaro zenean.

## AGERIALDEKO ERAIKINA BERRITU EGINGO DA

Ikastolarekin sinatu zen hitzarmenari jarraipena emango zaio 2014an. “Patioa egin da aurten, eta datorren urtean **Agerialdeko eraikinean** bertan zenbait zati eraberrituko dira. Eraikin berria egingo da, baina daukaguna ere mantendu egin behar da. Bi fasetan ezarria zegoena aurtengo udan egingo da osorik”. Era honetan, “ikastolako obra bukatutzat emango da, hitzarmenean jasota geratu ziren lan potolo horiek behintzat bai”.

## TXOKOALDEKO PLAZA

Beste inbertsioetako bat **Txokoaldeko plaza berritzea** izango da. Aspaldiko eskaera, 2014an EH Bilduk bete nahi duena. “Proiektua definituta dago, xehetasun batzuk falta dira lotzeko. Datorren urtean burutuko da”, halaxe azaldu digu Alaitz Aizpuruak Ogasuneko zinegotziak.

## BIDEGORRI SAREA

Bidegorri sareak ere, inbertsio partidaren kopuru bat hartuko du. “Zatika bada ere, **sarearen lehen zatia 2014an jarriko da martxan**”.

## PLAN OROKORRA

Legez, 2014rako eginda egon beharko luke **Usurbilgo Plan**



2014ko udan amaitu nahi dituzte Agerialde eraikineko konponketa lanak.

## ALAITZ AIZPURUA

**2014an hasi nahi du Udalak Plan Orokorra diseinatzen “eta herritarrak inplikatzeara oso garrantzitsua izango da”**

**Orokorrak.** “Garrantzitsua izango da, herriaren etorkizuna hor definitu beharko baita”. Funtsezkoa denez, “herritarrak inplikatzeara garrantzitsua izango da”, adierazi digu Alaitz Aizpuruak.

Ildo nagusiak Plan Orokor horretan definitu beharko dira. 2014an eman nahi zaio hasiera planaren diseinuari.

## INGURUMENEAN, ZERO ZABOR BIDEAN SAKONDU

Hondakinen arloan, aurreikuspen hau egin digu EH Bilduko ordezkariak: “zero zabor bidean pauso berriak ematen jarraituko dugu”.

**Auzo-konposta** sustatzen

jarraitu eta **sortzez besteko** bidea ere urratu nahi da 2014. urtean.

2013an onartu zen **energia aurrezteko EGEP plana** eta “2014 urtean, plan horretako hainbat lan abiaraziko dira. 70.000 euroko partida aurreikusi da inbertsio ezberdinak egiteko, argiterian edota kiroldegian energia aurrezteko... Inportantea da alde horretatik inbertsioak egiten joatea”.

## ONGIZATE ARLOAN

Drogomenpekotasun programa, familian esku hartzeak, etxebizitza tutelatuetak, adineko pertsonen programak, buru eritasun programak, gizarte larrialdietarako asignazioa... 80.000 euroko partida aurreikusi dute 2014an, iaz baino handiagoa.

**Garapen bidean diren herrirentzat**, 77.000 euroko partida egongo da. “Euskal Fondotik bideratzen da baina herritarrek aurkezten dituzten beselako proiektuetara ere bide-

ratzen da” diru hori.

**Berdintasuna eta parteharitze programak** ere sustatuko ditu udal gobernuak.

**Kiroletan**, mantenu lanak egiteko inbertsioak egingo dira. Haranen eta kiroldegian, esate baterako.

## Aurrekontuen herri aurkezpena, azaroaren 28an Potxoenean

laz erronda bat egin zuten auzoz auzo. Aurten, aurkezpen bakarria egingo dute: azaroaren 28an Potxoenean. “Urtean zehar jaso ditugun proposamenak eta iradokizunak kontuan izan ditugu. Aurrekontu proposamenaren aurkezpena azaroaren 28an osteguna egingo da Potxoenean, 19:00etan hasita. Hor jasotzen ditugun ekarpenak ere ongi etorriak izango dira. Herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu ekarpenak egitera”.

■ Azaroak 28 osteguna.

■ Potxoenean, 19:00etan.

# Enpresak euskalduntzeko urrats erraz bezain sendoak

**E**uskararen normalizazioan Buruntzaldeko udalak eskualdeko enpresak euskalduntzeko lanetan ari dira “Baietz gurean!” egitasmoaren baitan. Aholkularitza eta diru-laguntza lerroen bitartez urtetik urtera gehiago dira parte hartzen duten enpresak. Hurrengo helburua udaletako hornitzaileak diren enpresekin lan egitea izango da.



2012ko sinaduran, eskualdeko alkateak izan ziren enpresetako ordezkariekin batera.

“Baietz gurean!” Buruntzaldeko herrietako 10 langiletik gorako enpresei zuzendutako egitasmoa da. 2010etik Buruntzaldeko Udalen asmoa da ahalik eta enpresa gehien jartzea euskararen erabilera normalizatzeko bidean, eta horretarako, helburu instrumental batez baliatzea erabaki dute, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ematen duen ziurtagirieta-koren bat lortzeko bidean enpresak jartzea, eta ibilbide horretan diruz laguntzea.

Buruntzaldeko udalek duten helburua da, Bikain ziurtagiria erreferente hartuta, euskararen erabilera normalizatzeko bidera erakartzea enpresak, horretarako aurrerapausoak diruz lagunduz.

Ekimen honetan parte hartzea erabakitzen duten enpresei azterketa bat egiten die enpresa aholkulariak egoera linguistikoa zein den jakiteko. Horretarako, HPSk “Lan Hitz” programaren barruan definituta duen Erreferentzia Marko Estandarra erabiltzen du.

0-1000 puntuko tartean neurtuko da egoera. Enpresa ahol-

## **“Buruntzaldeko udaletako hornitzaileengana iristea izango da eskualdeko euskara zerbitzuentzat hurrengo erronka”**

kulariak txostena egingo du zehaztuz neurketaren emaitza eta enpresa horrek hurbilen duen Bikain Ziurtagirirako bidean egin beharrekoak. Bide horretan, 100 puntuko salto bakoitzeko jasoko dute diru saria Udalaren eskutik. Hasierako puntuak gehiago sarituko dira: 0-500 tartean 700 euro salto bakoitzeko, 501-800 artean 500 euro, eta 801-1000 artean 300 euro. Enpresak parte hartzea erabakitzen duenean, urte beteko hitzarmena sinatzen du Udalarekin, luzatzeko aukerarekin, eta hitzarmen horretan jasoko da, besteak beste, udalak enpresari eman diezaiokkeen dirulaguntzaren inguruko informazioa.

## **2004TIK LANEAN**

Buruntzaldeko udalek 2004.ean ekin zioten eskualde-

ko lan munduan euskararen erabilera normalizatzeko sustapena egiteko programari. Helburua zen ahalik eta enpresa gehien martxan jartzea euren euskara plana egiten. 20 enpresa inguru abiatu dira geroztik euskara planetan eta aipatu behar da, horietako batzuk oraindik jarraitzen dutela planaren faseren batean.

Plan hauek burutzen ari diren enpresek Hizkuntza Politika Sailburuordetzako diru laguntzak jasotzeko aukera dute eta horretarako urtero ateratzen den dealdia baliatuz eskaera egiten dute.

Aurtengoan, eskualdean “Lan Hitz” programaren bidez ematen diren laguntzak adibidez: Autocares Aizpurua (Usurbil), Berriola S. Coop (Usurbil), Galemys S.L. (Hernanin egoitza bat), Latz (Andoain), Orona (Hernani), S.Izaguirre S.A. (Usurbil), Selectiva San Marcos UTE (Hernani), Telesonic S.A. (Lasarte-Oria) edota Victorio Luzuriaga Usurbil (Usurbil) enpresek jaso dute.

Bestalde, aipatu bezala,

2010etik “Baietz gurean!” egitasmoa garatzen ari dira Buruntzaldeko udalak, eta lanke-ta horren ondorioz hainbat dira momentu honetan euskararen erabilera normalizatzeko lanetan ari diren enpresak. Besteak beste, Katealegia, Sulabe, Adarra, Latz, Horma, Etxeberria, Hostelera del Norte S.L. eta Aldikar autoak S.L.

## **HURRENGOAK, HORNITZAILEAK**

Lan mundua euskalduntzen jarraitzeko eta herritarrari zerbitzu hobea eskaintzeko helburuarekin, Buruntzaldeko udaletako hornitzaileengana heltzea da jarritako hurrengo erronka. Hornitzaileak aukeratzeko garaian, ahalik eta herri edo udal, gehienetako hornitzaileak izatea baloratuko da baita enpresa gure eskualdean kokatzea besteak beste.

Egun udalek baldintza ple-guen bitartez erregulatu dezakete hornitzaileen hizkuntzako betebeharrak baina beti ez da aukera hau egoten kontratazio motaren arabera delako.

Hori dela eta, Buruntzaldeko udalen helburua da hornitzaile hauekiko harremana, idatzizkoa bezala ahozkoa, euskaraz izatea, eta horretarako behar duten laguntza eskaintzea.

Ahalik eta hornitzaile gehienetara iritsita “Baietz gurean!” egitasmoaren bidez hizkuntza politika egokia ezartzeko laguntzak eskainiko dira dokumentazioa euskaraz jartzeko, errotulazioa euskarazko baita lehenengo hitza euskaraz izan dadin beti.



## Txetxu Alberdi, Aldikar Autoak: "Euskara orain gure lan esparruan presente dago"

Orian dago kokatuta Aldikar Aituak Mitsubishi kontzesionario eta tailerra. Lasarte-Oriako enpresak lehen aldiz egin du bat Baietz gurean! egitasmoarekin. Txetxu Alberdi bertako langilea oso pozik azaltzen da egitasmoarekin, honi esker lan eremuan euskara behintzat presente dagoelako.

### Nola sortu zen euskara sustatzeko egitasmoarekin bat egitea?

Esan behar dut lehenengo ni hasi nintzela harremanetan jartzen hainbat erakunderekin. Nahiz eta euskalduna izan eta euskaraz ikasketak burutu, mugatuta sentitzen nintzen askotan nire eguneroko lanean euskarazko hitz teknikoekin etab. Horrela pixkanaka joan nintzen ikusten hainbat aukera eta laguntza zezudela enpresen barruan euskara sustatzeko. Iruditu zitzaidan egitasmo

horietako bati heldu behar geniola, gure fakturak eta batez ere bezeroei ematen zaien dokumentazioa euskaraz edukitzeko.

### Zuk proposatu zenuen Baietz Gurean! egitasmoarekin abiatzea?

Bai hala da. Pertsonalki euskararekiko dudak atxikimenduak bultzatu ninduen enpresako zuzendaritzari gaia mahai gainean jartzea.

Kontutan izan behar da Mitsubishi kontzesionario bat garela eta multinazionalak bidaltzen digu lan egiteko beharrezkoa dugun dokumentazio eta informazio guztia. Ez dago gure esku kotxeen katalogoak etab.en aldaketa. Baina hala ere, enpresaren barruan eta bezeroari ematen zaizkien dokumentuetan behintzat, batez ere fakturak edota kotxea erostera etortzen direne-

an harrera, euskaraz egitea landu beharreko gaia zela ikusi zen zuzendaritzan eta ondo hartu zuten proposamena, beraz aurrera egin genuen.

### Zein da enpresan euskararen egoera?

Momentu honetan langile gehienak erdaldunak dira. Hala ere, badira euskaldunak baita euskara ulertzen dutenak ere.

Egitasmoaren baitan, kartelak bi hizkuntzetan jarri dira eta langileen arteko zenbait komunikazio bi hizkuntzetan egiten hasi gara.

### Egitasmoan parte hartzen hasi zinetenetik aldaketarik somatu al duzu?

Enpresa munduan ez soilik gurean, nik uste dut gutxi bada ere, aldaketa handia dela behintzat euskar-



Euskara eguneroko lanaren parte bihurtu dela dio Txetxu Alberdik.

ren presentzia nabaritzea. Orain karteletan ikusten dugu behintzat, ohar batzuetan, hainbat lan beti erdaraz egin direnak orain tarteka euskaraz egiten ditugu, bezero euskaldun bat datorrenean saiatzen gara euskaraz arreta ematen... Ez da asko, oraindik barne funtzionamenduan hizkuntza nagusia gaztelera delako, baina esan bezala, pixkanaka bada ere, aurrera pausak dira. Gure lan esparrutan euskara behintzat presente dago.

## Aritz Ajuria, Comercial Hosteleria del Norte "Gure esku dago euskara lanean ere erabiltzea"

Comercial Hosteleria del Norte enpresarentzat bigarren urtea da Baietz gurean! ekimenean parte hartzen. Honi esker urteetan, enpresaren sorreratik, egon diren hizkuntza ohiturak pixkanaka aldatzen doaz. Askok laguntzen du langileen artean euskara izatea hizkuntza nagusia. Horrek bidea erraztu duelakoan dago Aritz Ajuria bertako langilea.

### Zergatik erabaki zenuen Baietz Gurean egitasmoarekin bat egitea?

Gure enpresan langile gehienak euskaldunak dira eta gure egunerokoan, euskara oso barneratuta dago.

Hala ere, iraganeko ohiturak eta egiteko moduak oso barneratuak daude enpresan eta denak gaztelera, beraz, poliki bada ere, euskara enpresan barneratzea garrantziko iruditu zitzaigun.

### Zein zen euskararen egoera zuen enpresan?

30 urte baino gehiago ditu Comercial Hosteleria del Norte eta normala den bezala 80ko hamarkadan euskaraz zuen presentzia askoz gutxiago zen egungo egoerarekin alderatuta.

Aipatutako iraganeko ohitura horiek enpresan oraindik dira eta zaila da, betidanik modu batera eza gutu dituzun gauzak, izenak edo dokumentuak aldatzea, baina lan horretan gabiltza orain.

### Enpresan orain euskararen egoera hobea dela esango zenuke?

Poliki-poliki bagabiltza gauzak aldatzen. Garrantzitsuena, lankide gehienek euskara asko bizi dugula da eta gure artean euskaraz aritzeko ohitura dugula. Oinarri hau iada edukita, prozedura aldaketak, formalismozko gauzak aldatzea edo dokumentuak itzultzea gutxi-gutxi egingo ditugun aldaketak izango dira.

### Bigarren urtea da egitasmoarekin bat egiten duzuela. Zeintzuk izan dira emandako aurrerapausoak?

Une zailak dira enpresa munduan, ekonomia gaizki dago eta enpresa gehienetan gauzak zail daude.

Testuinguru honetan, edozein proiektu aurrera ateratzea zaila bihurtzen da, izan ere, egunerokoak eta krisia gainditzeko lanek gaintzen gaituzte ia. Hala ere, euskararen inguruan enpresaren konpromesua argia da eta ohiturak aldatzea eta euskararen presentzia handiago izatea gure helburu argiak dira urte honetan ere.

### Nola baloratzen duzue udalek halako ekimenak bultzatzea?

Aipaturiko krisi egoera hau udaletan ere nabaria da, beraz horrelako proiektuak aurrera ateratzea txalogarria iruditzen zaigu.

Euskararen inguruan, euskaldun gehienak izugarriko estima diogu hizkuntzari, baina jendea, kasu honetan eskualdeko udaletako teknikari horiek



Euren lantokian urrats garrantzitsuak eman direla dio.

euskararen etorkizunean horrelako indarrarekin lan egiten ari direla ikustea guretzat oso handia da eta horrela jarrai dezaten desio dugu noski.

### Animatuko zenituzke beste enpresak bat egitera?

Noski, animatuko nituzke bai enpresak. Euskararen etorkizuna, gure esku dago, euskaldunon esku, eta gu saiatu behar gara euskara gure lan esparruan, enpresa munduan ere geroz eta normalizatuagoa egoteko.

## Tapia eta Zumetarekin amaitu zen Kulturaldia

**B**i astebururen bueltan ospatu den NOAUA!ren Kulturaldiak berea egin du. Antzerkia, dokumentalak, ibilaldia, hitzaldia, bertso musikatuena saioa... Denetarik izan dugu aurten ere. Gertukoak ditugun bi izen propio izan ditu Kulturaldiko azken txanpak; Joseba Tapia lehenik. "Belarriak soinu" izenburupean hitzaldia eskaini zuen iragan azaroaren 14an Potxoenean. Bere bizipenak, eta musikari loturiko hainbat irakaspen modu xume eta erakarzarrian plazaratu zizkion, bertaratu zen hogei lagunetik gorako taldeari. Abesteko tartea ere hartu zuen Tapiak.

Biharamunean Sutegin, gutxitan ikus deza-kegun artista baten sortze lan prozesua ezagutzeko aukera izan zuten, aretoa goitik behera bete zuten herritarrek. Lanketa horren egilea ezaguna baitzen, etxekoa, Jose Luis Zumeta. Bere alaba Monikak eta Enara Goikoetxeak zuzenduriko "Izenik gabe 200x133" dokumentala proiektatu genuen Udalarekin elkarlanean. Donostia-ko Zinemaldian estreinaturiko ikus-entzunezkoa hasi aurretik, bi zuzendariak hitza hartu zuten. Dokumentalean Zumetak erakusten duen moduan, sortze prozesuari loturiko zenbait zehaztasun azaldu zituzten.

### Abenduaren 22an, Santo Tomas azoka


Eta Kulturaldia "Agur esatea" filmarekin amaitu genuen igande iluntzean. Akabo 2013ko kultur zikloa. NOAUA!rekin hurrengo hitzordua, abenduaren 22an, Santo Tomas azokan.



Joan den asteko hitzaldian, abesteko tartea ere hartu zuen Joseba Tapiak.



Azaroaren 10eko ibilaldian, Itziar Illarramendiren azalpenei adi.



"Aktibo toxikoa" antzezlanak krisia du hizpide. Carlos Santamaria izan zen Kulturalditik igarozten lehen artista.



"Ez gara Palestinaz ari" ikuskizunak bildu zuen jende gehien. Bertsoa, poesia, musika eta antzerkia uztartzen dira saio honetan.



Zumetaren inguruko dokumentala eskaini aurretik, hitz batzuk egin zituzten zuzendariak, Enara Goikoetxeak eta Monika Zumetak.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**TAXI**  
607 92 87 70  
943 00 44 83  
Angel (24h) USURBIL

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**www.noaUA.com**  
USURBILGO ATARIA

# Eskaintza zabala Garbigunean

**M**ugimendu handia omen dabil Atallun kokatua dagoen Garbigunean. Hala dio bertan diharduen langileak. Denetariko gaiak eramaten ari dira herritarrek Garbigunera, eta beste hainbat gerturazten ari dira doan hartzera. Berrerabilera sustatzeko modu praktikoa bertakoa, doan eta gertu gainera. Autoa eskura baduzue, bertaratu eta ikusi Garbigunean zer dagoen. Behar duzuen hori aurki dezakezue agian.



Altzariak, apaingarriak... Denetarik aurki daiteke Atalluko pabilioian.

Biltegia objektuz betea dago, baina haietako bat baino gehiago azkar batean etxerako hartuko du norbaitek. Halere, Garbiguneko eskaintza zabala da:

## AISIA

- 29 eta 32 hazbeteko telebisita bana, altzari eta guzti.
- Irratiak.
- Jostailu berri berri asko.
- Bi entziklopedia bilduma.
- Euskaraz eta erdaraz argitaraturiko liburu ugari.
- Argazki kamera.
- Haurrentzako bizikleta.
- VHS bideoak.

## ALTZARIAK

- Aulkiak: kanpinetakoak, bizikleta atzean haurra eramateko aulkia, auto atzean haurra esertzeko aulkia.
- Muntatu gabeko idazmahai bat, kaxoi torloju eta guzti.
- Ohea, koltxoi eta guzti.

## ERABILGARRI

**“Atallun dagoen Garbigunea objektuz betea dago. Behar duzuen hori aurki dezakezue agian”**

- Lau somier.
- Koltxoi bat.
- Hiru arraska, oin eta guzti.
- Pertxak.
- Baxera eta mahai-tresnak.
- Lanparak.
- Fokoak.
- Apal luzeak horman jartzeko.

## APAINGARRIAK

- Gabonetako pinuak.
- Lorontziak.
- Denetariko apaingarriak.

## INFORMATIKA/TEKNOLOGIA BERRIAK

- Lau inprimagailu.

- Idazteko bi makina.
- Haririk gabeko ruter berri bat.
- Kable piloak.
- Saguak.
- Teklatuak.
- Mugikor kargadoreak.
- Konektoreak.

## KIROLAK

- Bi bizikleta estatiko.

## IBILGAILUAK

- Kateak.
- Kaskoak.
- ...

## Garbiguneko ordutegia

- Asteleheneretik ostiralera: goizez, 10:15-13:00 artean; arratsalde, 16:00-19:00 artean.
- Jai egunak ez diren larunbaitetan: 9:00-13:00 artean.
- Informazio gehiago: 943 21 49 77 edo [sanmarko@sanmarko.net](mailto:sanmarko@sanmarko.net)

## Bi garbitzaile kontratatze lan deialdia

Eskaerak: deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita 20 egun naturaleko epean.

Oharra: akats zuzenketa. Gaitegiko 5. gaiko "hondakinen tratamendua Usurbilen" atalerako informazioa atez ateko gaikako bilketaren gidan aurkitu daiteke. Informazio gehiago: [udaletxean](http://udaletxean) edo [usurbil.net](http://usurbil.net) atarian.

## Kirol instalazioen garbiketa

Deialdia: Usurbilgo kirol instalazioen garbiketa kontratu erreserbatua.

Nori zuzendua: enplegu zentro berezientzat erreserbatua.

Aurkezteko epea: abenduaren 10a eguerdiko 14:30ak.

Informazioa: [udaletxean](http://udaletxean)/[usurbil.net](http://usurbil.net)

## Odol Emaileen Eguna, abenduaren 8an

Usurbilgo Odol Emaileen Taldeak zera adierazi nahi dute: "Usurbilgo Odol Emaileen, 2013 urteko bazkaria datorren abenduaren 8an egiteko asmoa dugula, Atxega Jauregian hain zuzen ere. Bertaratu nahi duenak eta bazkarirako txartela eskuratu nahi duenak arduradunetako batekin nahikoa du harremanetan jartzea.

Agustina: 943 36 31 02

Maite: 943 36 60 40

Jero: 943 37 07 23

M<sup>o</sup> Sol: 943 37 24 87".

# Ekintzaileentzako diru laguntza deialdia

Lanbide eta Donostia-Mendebalde eskualdea osaturiko udalek antolatuko deialdi bikoitz hau. Ekintzaileen negozio ideien azterlana eta enpresa ideia abian jarri edo alta ematera bideratu nahi dituzte laguntzok. 1.500 euro azterlanera, eta bes-

te 1.500 euro ideia martxan jartzeko. Eskaerak aurkezteko epea zabalik dago jada, abenduaren 5era arte, Andoaingo Udalean. Plaza kopurua mugatua izango da, eta horregatik, "aurkezturiko eskaera guztien artean irizpide hauek jarraituz hautake-

ta bat egingo da: sustatzailea eta enpresa ideia arteko bateragarritasuna, langabezian egondako denboraldia eta negozio ideia".

■ Eskaerak: abenduaren 5a baino lehen, Andoaingo Udalean.

■ Emango diren laguntzak: 1.500

euro negozio ideien azterlanerako eta beste 1.500 euro enpresa ideia abian jarri edo alta emateko.

■ Oharra: plaza kopurua mugatua.

■ Informazio gehiago: 943 304 221 edo [ekinean@andoain.org](mailto:ekinean@andoain.org)

# Ibilaldi eta proiektioz betea dator Mendi Astea



Azaroaren 28an, Alex Txikonen inguruko ikusentzunezkoa emango dute Sutegin.

Mundu zabalean grabaturiko bi proiektio, antolatzaileek prestaturiko hirugarren emanaldi bat, eta Usurbilgo mugetatik barrena ibilaldia. Proposamenekin osatu dute Andatza Mendizaleen Kirol Taldekoek, azaroaren 27tik 30era luzatuko den 2013ko Mendi Astea.

Karakorumeren bidaiatuko dugu Alex Txikonekin azaroaren 28an. Bertan eginiko ibilaldien berri jasoko dugu hurrengo ostegunean. Bezperan, Marimenditarrak izango ditugu Mendi Astea estreinatzearen protagonista nagusiak. Eta haiekin Andeetara hegan egingo dugu; Ishinca (5.550 m), Urus (5.470 m) eta Pisco (5.752 m) gailurrak zapaldu zituzten 2010ean. Hiru gailurro egite-ra joandako emakumeon ibileren berri izango dugu azaroaren 27an, "2010 Marimendiak Andeetan" izeneko ikus-entzunezkoan.

## Federatu txartelak berritzeko aukera

Amaitzean dugun 2013. urtean zehar Andatza Mendizaleen Kirol Taldekoek antolatutako irteeretan ateratako argazki eta grabatuko bideoen emanaldia proiektatuko dute azaroaren 29an. Saio guztiok, hitzordu bera dute; 19:30etan, Sutegiko auditorioan. Ekitaldiok hasi aurretik gainera, antolatzaileek Sutegi sarreran jarriko duten mahaian datorren urterako, 2014rako federatu txartelak berritzeko aukera egongo da.

## Azken egunean, mendi irteera eta bazkaria

Honez gain, Mendi Asteari amaiera emango dion mendi irteeran izena emateko aukera egongo da mahaian bertan. Usurbilek Orio eta Donostiare-

kin dituen mugetatik barrena ibilaldia antolatuko baitu Andatza MKT-k, azaroaren 30erako. Mendi bueltatik itzultzean, Patri jatetxean bazkaltzeko aukera egongo da.

Datorren Mendi Astearen beraz, izango da zer ikusi eta zer entzuna. Azaroaren 27tik 30erako eskaintza osoa, hemen:

## Azaroak 27, asteazkena

■ 19:30 Hitzaldia eta ikus-entzunezkoa Sutegin: "2010 Marimendiak Andeetan" Uxue Berridiren eskutik.

## Azaroak 28, osteguna

■ 19:30 Ikus-entzunezkoa Sutegin: Alex Txikonek Karakorumen egindako ibilaldiak eta hainbat jauzi ikusteko aukera.

## Azaroak 29, ostirala

■ 19:30 Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak 2013an antolatutako mendi irteeren bideo eta argazki emanaldia.

## Azaroak 30, larunbata

■ 8:00 Mendi ibilaldia mugarririetara. Ondoren, bazkaria Patri jatetxean.

## Oharra:

-Sutegin burutuko diren ekitaldien aurretik, 2014ko federatu txartelak berri edota asteburuko ibilaldirako izena eman ahalko da.

Informazio gehiago: [andatzamendizale.info](http://andatzamendizale.info)

Antolatzailea: Andatza Mendizaleen Kirol Taldea.

## Ekitaldi bete asteburu, Parekidetasun Kontseiluaren eskutik

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira, ekimen sorta prestatu dute datozen egunetarako. Hitzorduok iragartze-ko sortu duten kartelak dioen moduan, indarkeria sexistari, matxismoari "zapla!" emateko.

## Azaroak 23, larunbata

■ 9:00 Indarkeria sexistaren aurkako mendi-martxa Bordatxo mendira frontoitik abiatuta, Andatza Mendizaleen Kirol Taldearekin.

■ 12:00 Hamaiketako Dema plazan.

■ 12:30 Hainbat herritarren eskutik, ekimen artistikoa Dema plazan: bertsoak, dantzak, abestiak, antzerkia.

## Azaroak 24, igandea

■ 18:30 Ixabel Agirresaroberen "Emakume protagonistak" helduentzako bakarrizketa saioa, Sutegiko auditorioan. Toti Martinez de Lezearen "Urak dakarrena", Errose Bustintzaren "Mañariko", R.M. Azkueren kontakizunekin eta beste herri ipuin batzuekin osatutako saio gazi-goza entretenigarria eskainiko du. Doan.

## Azaroak 25, astelehena

■ 17:00 Emakumeenganako indarkeriaren aurkako mural pintaketa herritarra, frontoien artean.

Antolatzailea: Parekidetasun Kontseilua.

## Usurbilgo gazteen mugimenduak

Azaroaren 25ari begira, ekimen gehiago antolatu dira elkarlanean, kasu honetan, Usurbilgo gazteen mugimenduarekin.

## Azaroak 22, ostirala

22:00 Indarkeria sexistari buruzko mahai ingurua Usurbilgo Gaztetxean.

## Azaroak 24, igandea

12:30 Elkarretaratzea frontoian.



Mural bat pintatuko da azaroaren 25ean.

# Abenduaren 1ean, Mendi duatloia Zubietan



Zubietako duatloia hiru sektoretan banatuta egongo da.

**E**uskal Herriko Mendi Duatloi proben zirkuitua azken txanpan da. Lasterkariak igande honetan dute azken bigarren proba Urduñan. Eta azkena, abenduaren 1ean ospatuko da, Zubietan. Herri Batzarrak antolatutako txapelketa hitzordua, goizeko 11:00etarako finkatu dute, Zubietako erreboten plazan. Izen emateko eta argibide gehiagorako, proba hauei loturiko web orrian sartu besterik ez duzue: mendiduatloia.com.

Hiru sektoretan banatua egongo da 15 kilo-

metro pasatxoko Zubietako kirol proba:

- 1. sektorea: 4,2 kilometro mendi lasterketa.
- 2. sektorea: 8,9 kilometro mendi bizikletaz.
- 3. sektorea: 2,21 kilometro mendi lasterketa.

## Usurbil FTko talde-argazkia

Usurbil FT-k, 2013-2014 denboraldirako osatu dituen taldeak aurkeztu zituen igandean. Datoren astean emango ditugu xehetasun gehiago. Taldeon argazkiak noaia.com web orriko Argazkitegia atalean dituzue ikusgai.

## Buruntzazpikoak, lokatz eta elur artean

**A**rabako Zuia Amezaga herrian, lokatz eta elur artean aritu behar izan zuten Buruntzazpiko txirrindulariek. Jubeniletan, Xuban Errazkin hirugarren izan zen eta kadeteetan, Iñigo Altunak lasterketa amaitzea lortu zuen. Xuban oso ondo zihoan baina azken itzulian gurgila atara egin zitzaion eta hirugarren iritsi zen helmugara.

**Zornotzan ere, Xuban Errazkin hirugarren** Jon Ander Unanue seigarren eta Luis Sobejano eta Harkaitz Murillok lasterketa bukatzea lortu



Aurreko asteburuan, Araba partean ibili ziren.

zuten. Kadeteetan, Iñigo Altuna bosgarren izan zen. Taldeka, aldiz, txapeldun izan ziren Buruntzazpi taldekoak.

## Errebote Txapelketako finala, bertan behera

Eguraldi txarregatik ez zen Endika Abril Txapelketako finala jokatu. Zehazteke oraindik Luzaz Gazte eta Zubietaren arteko partida.

## Eskubaloia Oiardon

### Azaroak 23, larunbata

09:15 LH 3-Benjaminen topaketak.

10:15 LH 4-Benjaminen topaketak.

11:30 Alebin neskek:

Udarregi 5A-Udarregi 6A

11:30 Alebin neskek:

Udarregi 5B-Udarregi 6B

12:45 Jubenil mutilak:

Usurbil K.E.-Ormaiztegi K.E.

18:30 Senior mutilak, 2.nazionala:

Ucin Usurbil-Soraluce Bergara K.E.

### Azaroak 24, igandea

10:00 Infantil neskek:

Udarregi B Usurbil-Ereintza B

11:30 Infantil mutilak:

Udarregi Usurbil-Argiki Legazpi

## Pilota partidak

### Gipuzkoako Txapelketako final-erdiak

**Azaroak 22, ostirala Aginagan, 21:30**

**Gomazko paleta gizonetzkoak 2. maila FINAL-ERDIA**

USURBIL 1 - LAGUNAK 1

(Xabier Errasti-Imanol Esnaola)

### Gomazko paleta gizonetzkoak 2. maila

USURBIL 2 - MUNDARRO

(Josu Arruti-Jon Olaizola)

### Gipuzkoako Txapelketako finalak

**Azaroak 22 ostirala, 20:00 Bergara**

**Ohorezko maila, eskuz binaka nagusiak:**

ILUNPE (Azpeitia) -USURBIL

(Xabi Santxo - Julen Urruzola)

**Azaroak 24 igandea, 11:00 Erreterria**

**1. Mailan eskuz binaka nagusiak:**

HERNANI - USURBIL

(Xabi Urbieta- Asier Arruti)

# LOGOPEDA

USURBIL 635 70 13 74

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL







# Agenda azaroa

## 22 ostirala

- Azaroaren 25ari loturiko ekimenak: mahai ingurua gaztetxean. 22:00etan.

## 23 larunbata

- 9:00etan Indarkeria sexistaren aurkako mendi-martxa Bordatxora, frontoitik. 12:00etan Hamaiketakoa eta 12:30ean ekimen artistikoa Dema plazan.
- 18:00 Erle Eguna, hitzaldia Sutegin.

## 24 igandea

- XV. Erle Eguna, 11:00-14:00 frontoian.
- Azaroaren 25ari loturiko ekimenak: elkarretaratzea 12:30ean frontoian.
- Ixabel Agirresaroberen bakarrizketa saioa 18:30ean Sutegin.

## Badator Erle Eguna, gozo asko beste behin ere

lgande honetan ospatuko da Erle Lagunak taldekoek antolatutako azokaren hamabosgarren edizioa. Goizeko 11:00etatik bazkal ordura arte, frontoian eta Dema plaza bueltan jarriko dituzten erakusketa eta postuetatik barrena osteratxo egin, edota sektore honi loturiko produktu gozo asko erosi ahal izango dira. Artean, aurpegi ezagunez osaturiko epaimahaia ezti, gozogintza eta marrazki txapelketetako produktu eta arte lanak baloratzen ariko da. Eguerdi partean emango dute erabakitakoaren berri. Eta gero noski, enkantea ospatuko da. Ezti eta gozogintza lehiaketetan parte hartu asmo duzuenok, goizean goiz, 9:00etatik 10:00etara frontoira agertu beharko duzue zuen produktuekin.



Ezti eta gozogintza lehiaketetan parte hartu asmo dutenek goizeko 9:00etatik 10:00etara eraman behar dituzte euren produktuak frontoira.

### Liztor asiarraren mehatxua

Kaltea baino ekarri ez duen animalia inbaditzaile honen inguruan kontzientziatzea sustatu behar dutela eta, iaz bezala, aurten ere liztor asiarraren inguruko erreportajea eskainiko dute, Erle Egunean zehar Sutegin. Hauxe beraz, igandean ospatuko den urteko hitzordu gozoenerako egitaraua.

### Azaroak 23 larunbata

- "Erlategiko praktika onak" hitzaldia (erdaraz). 18:00etan Sutegin, Karlos Marinen eskutik.

### Azaroak 24 igandea, Erle Eguna

- Egunean zehar, Zubieta, Aginaga eta Udarrerdi ikastolako umeen marrazkiak Sutegin.

- 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.
- 11:00-14:00 Erakusketa (erleak, argizaria, panelak...), postuetako salmenta, musika, marrazki lehiaketa...
- 10:30, 11:00 eta 11:30 Sutegiko auditorioan: Erle asiaticoari buruzko erreportaia (gai honen inguruko hiru emanaldi egingo dira).
- 13:30 Erleek beraiek ekarritako sari banaketa (ezti, gozogintza eta marrazki lehiaketa) eta ezti sarituen enkantea.
- 14:30 Bazkaria Artzabalen (txartelak egunean bertan, frontoian salgai).
- Tokia: frontoia.
- Antolatzailea: Erle Lagunak.

### Datozenak

#### Konpostatze ikastaroa Atxegalden

Larunbat honetan, azaroaren 23an, 11:30etan Alperro-Buru kalean dagoen konpostatze gunean. Auzokideei zuzendua egongo da saioa, gune horretan, eta Beko Kalen eta Erdiko Kalen kokaturiko beste gune banatan ere, bai baitago lekua familia gehiagok organikoa konpostatzeko. "Inskribatzen direnen hurrenkeraren errespetatuko da gelditzen diren plaza guztiak osatu arte". Argibide gehiago: 650 374 936 edo usurbilzerozabor@gmail.com.

#### Datorren astean, kantu-jira

Hilabeteko azken larunbatean ateratzen dira kalera Kantu Taldeko kideak. Azaroaren 30ean, arratsaldeko 19:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

#### Hirugihar pintxoak, abenduaren 1eko Tipi-Tapan

Abenduaren 1ean ospatuko da hurrengo Tipi-Tapa. Ibilbide gastronomiko horretan, mokadu bereziak dastatzeko zazpigel-toki izango dituzte herritarrek; Txiriboga, Aitzaga, Txirristra, Bordatxo, Xarma, Artzabal eta Txapeldun tabernak. 150 euroko erosketa balea zozketatuko da berriz.

**JE JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA OROKORRA**  
**Obrak eta erreformak**  
**661 804 688**  
 San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**txirristra**  
**TABERNA**

-Plater konbinatuak  
 -Ogitartekoak  
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Sarreraren salmenta



**"FROM BACH TO RADIOHEAD"**  
ARA MALIKIAN, J. Francisco Padilla, Ruben Rubio  
AZAROAK 22, ostirala, 20:00h

**"EL SÍNDROME DE STENDHAL"**  
AZAROAK 23, larunbata, 20:00h

**ANDOINGO UDAL MUSIKA ESKOLAKO BANDAREN KONTZERTUA**  
AZAROAK 24, igandea, 12:30h

**MARIFÉ NOGALES** (Mezzosopranoa)  
& **IOSU OKIÑENA** (Piano-jotzailea)  
AZAROAK 29, ostirala 20:00h

**Andoain Santa Zezilia Jardunaldiak** <http://basterokulturgunea.blogspot.com.es>

## ONTZI ARINETAN PLASTIKODUN ONTZIAK, LATAK ETA BRIK-ak SOILIK



### INGURUMENA GUZTION ARDURA DA BIRZIKLA DEZAGUN!



GOGORATU: ONTZI ARINAK ASTEARTE ETA OSTIRALETAN



# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

663 08 76 71  
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Jose Aizpurua  
**Unanue eraikuntzak S.L**  
teillatuak eta fatxadak

943 37 38 79  
620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Josue  
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60  
Atallu pol. atallu, 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

**Errazkin S.L.**

igeltseritza orokorra  
943 240 176 eta 649 435 470

Oztaran auzoa 33, URNIETA



**ANORCA TXIKI S.L**  
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak  
· beira bikoitza · segurtasun beirak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

LATAILLADE  
ITURGINTZA

Gasa, berogintza,  
klimatizazioa, instalazioak  
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

Javier Orbegozo  
GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3.esk

JOSEBA  
ARANGUREN  
ITURGINTZA

943 83 00 72  
659 88 39 12

Bainu eta sukalde  
erreformak, gasa,  
berokuntza

Josetxo Ikatzeta

687 951 225



**ESKAIOLA  
PLADUR**

Joxean Elorza -USURBIL  
699426042



**Antonio  
URRUZOLA**  
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415  
Asteasuain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**  
Salsamendi Arregi, Imanol  
AROSZTEGIA

943 362 664  
Barren Etxe kalea ZUBIETA



izagirrelektrizitatea@hotmail.com

**izAgirre**  
Elektrizitatea

Apdo. 37  
943 36 50 95  
609 06 81 11  
943 37 65 87

Goiz Argi etxea n° 37  
Kale Zahar Auzoa

**ARGILAN**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL